

## **Iraungo duen pakea**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1992-08-16: 2.

Bakea, oso delikatua den oreka besterik ez da.

Gu hauetako bakoitzak bere baitako konplexutasuna aztertzen badu, kezkak, ardurak eta tarteka urduritasunak eragindako, eta mudakorra, beti kolokan, bizi dugun zerbait da. Bakoitzak berea duen zerbaitek zirikatzen. Pertsona mailan gertatzen denak ukitzen gaitu taldeka sorterriak, hizkuntzak, fedea edo galduak utzitako gabeziak, eraginak, modu askotakoak dira: hezikera eta kulturaren arabera, koherenteagoak dira batzuk besteak baino; hala ere ez da gizartean sinplea den ezer, zeren eta nahasgai hauek denak, konta ezin ahala, batzu arrazoiz ordenatzen ahalegintzen dira, besteak sentiberatasunez; batzu itxaropentsu dira berez, besteak ezkor; batzu beldurti eta besteak ausart, errespeto handiz iharduten dute edo lotsagabe. Ez da, beraz, harritzekoa, euskaldunen artean bertan elkar hitzegitea hain zail eta neketsua gertatzea, eta elkar ulertzea hain bakan. Gauzak honela, bada oraindik gizonen artean indarkeria medio dela bake, bake finko eta egonkorrak egiteko edo ezartzeko asmotan gerra bezelako krimen haundiak planeiatzen dituenik. Ikusi dugu Ekialdeko kontradiziorik gabeko finkotasun gorri hura zertan geratu zen, eta gugandik gertuago, berrogei urteko Bakea bedeinkatua nola usteldu; zori handiko transizio baketsu hark ekarri zuen tiroketa eta espetxe amaiezina zertan den. Hemen gaude gaur, bake berri honen zain. Espero duguna da, ez dadila inor gezurretan etorri, baizik eta egiaz, justiziaz, errespetoz eta maitasun apur batez heldua eta inguratua, bestela lehengora itzuli gaitezke. Orekak lortzea zaila da, eta indarkerian oinarritutako ezerk ez du iraungo.